

<b>EUSKAL EKONOMIA BATZORDEA</b>	<b>AUTONOMIA ITUNEKO</b>	<b>ERKIDEGOKO ARBITRAJE</b>
--	------------------------------	---------------------------------

**Gatazka:** 9/2008  
**Eragindako administrazioak:**  
Bizkaiko Foru Aldundia.  
Estatuko Administrazioa  
**Xedea:** BEZa/ SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA:  
Ordainarazpena egiteko administrazio eskuduna.  
**Bestelakoak:** Gatazkaren onargarritasuna:  
gatazka azaltzeko idatziaren formaltasunak,  
Arbitraje Batzordea eratu aurreko gatazkak,  
gatazkaren izapidea etetea liskar judizialagatik.

**R 3/2009 ebazpena**

**9/2008 espedientea**

Gasteizen, 2009ko urtarrilaren 28an

Carlos Palao Taboada presidente jaunak eta Isaac Merino Jara eta Fernando de la Hucha Celador batzordekide jaunek osatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak honakoa

## **ERABAKI DU**

Bizkaiko Foru Aldundiak Estatuko Administrazioaren aurka agertutako eskuduntza gatazkari buruz, zein Arbitraje Batzorde honek izapidetzen baitu, 9/2008 espediente zenbakiarekin; gatazka, 2001eko ekitaldiari dagozkion Sozietateen gaineko Zergari eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokienez, (Erakunde 1) (IKF B-NNNNNNN) sozietatearen eta hark xurgatutako (Erakunde 2) (IKF A-NNNNNNN) sozietatearen zerga-egoitza zehaztean datza.

## **I.- AURREKARIAK**

1. Eskuduntza gatazka hau 2008ko martxoaren 14an sartu zen Arbitraje Batzordearen erregistroan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Foru Diputatuak sinatutako idatziaren bidez; bertan, hitzez hitz, honakoa adierazi zuen: "Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordea 2007ko uztailaren 30ean eratuta eta indarrean dagoen Ekonomia Ituneko 65. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera (...) Bizkaiko Foru Ogasunak batzordea eratu aurretik

jarritako agertutako gatazkei buruzko espedienteak igortzen dira"; haien artean dago (Erakunde 1)i (laburdura hori erabiliko dugu aurrerantzean sozietate hori aipatzeko) dagokiona.

2. Bizkaiko Foru Aldundiak (zehazki, Ogasun eta Finantza Saileko Ogasuneko zuzendari orokorrak) Estatuko Zerga Administrazioako Agentziari (aurrerantzean EZAA) inhibitzeko eskatu zion, EZAAren Euskadiko ordezkari bereziari igorritako 2005eko maiatzaren 27ko idatziaren bidez. Idatzia honakoan oinarritu zen: eskuduntza Bizkaiari zegokion, sozietatearen zerga-egoitza lurralde historiko horretan zegoelako eta aurreko urteko operazio bolumena 500 milioi pezetatik beherakoa zelako. EZAAk ez zion eskaerari kasurik egin; hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia eta Finantza Saileko idazkari tekniko orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Lurralde Finantzazioko zuzendari orokorrari zuzendutako 2005eko azaroaren 21eko idatziaren bidez (irteera data hil beraren 29koa da) eskuduntza gatazka piztu zuen formalki, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Ekonomia Ituneko 66.bat.b) artikulua babespean, ikuskapen jarduketak egiteko eskuduntza zeukan administrazioa EZAAren Euskadiko ordezkari berezia ez, baizik Bizkaiko Foru Aldundia zela iritzita, eta, Ekonomia Ituneko 66.bi artikulua arabera, jarduketak geldiarazteko neurri guztiak har zitezela eskatu zuen.

3. (Erakunde 2) sozietatea 1988ko azaroaren 10ean eratu zen, eta haren helburu soziala hotel eta ostalaritzako jarduera (kafetegi-jatetxea) zen, akziodun nagusiak hotela –haren aktibo nagusia zena, kontabilitateko balio garbia 162.000.000 pezetakoa izanik- eman zuen eta hura ustiatu zuen 2001eko urriaren bukaera arte; urte horretako urriaren 1ean Kantabriako EZAAren ordezkari bere hoteleko jarduera amaitzeko eskabidea aurkeztu zion, eta azken salmentak urte horretako urriaren burutu zituen. 2001eko urriaren 4an Kantabriako Merkataritza Erregistroan erregistroko inskripzioak ixteko eskabidea aurkeztu zuen egoitza soziala Bilboko (egoitza)ra aldatzeagatik; bestalde, egoitza sozialaren aldaketa 2001eko urriaren 10ean erregistratzen da Bizkaiko Merkataritza Erregistroan. Ondoren, 2001eko azaroaren 15ean Bizkaiko Foru Aldundian zerga-egoitza aldatzeko zentsu aitortpena aurkeztu zuen; bestalde, egun berean zentsu aitortpen bera aurkeztu zuen Bizkaiko

EZAAn, puntu horri dagokionez data horren eta 2002ko abuztuaren 6aren arteko nahaste handia eta errepikatua badago ere. Nahaste hori EZAaren agirian, zeinean egoitza aldaketa onartzen baita, hasten da eta Euskadiko Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren ebazpenetara eta EZAaren beraren alegazioetara hedatzen da. EZAak igorritako agirietatik (ikus 12. aurrekaria) data zuzena 2001eko azaroaren 15a dela ondorioztatzen dela dirudien arren, eta hori garrantzitsua da, data okerrak ondorio okerrak baitakartza Euskadiko EAEaren ebazpenetan eta EZAAn bertan.

4. (Erakunde 1) sozietatea arkitekto bik eratu zuten 1999ko martxoaren 13an, zerga- eta sozietate-egoitza (Udalerrria)n (Bizkaia) izanda, eta haren helburu soziala arkitektura zerbitzuak ematea zen. Sozietateak ez zuen aktibitateirik izan eratu zenetik 2001eko abuztuaren 6a arte; data horretan Santanderren bizi ziren hiru pertsona fisikok (Erakunde 1)en partaidetza guztiak eskuratu zituzten; egun berean eta protokolo notarialeko zenbaki korrelatiboarekin (Erakunde 1)en helburu soziala aldatu zen "ostalaritza, eraikinen eta obren sustapen eta eraikuntza eta aholkularitza eta higiezinaren kudeaketa zerbitzu"etako jarduerak izateko; halaber, administrari solidario bi izendatu eta egoitza soziala (Udalerrri)tik Bilboko (egoitza)ra aldatu zen. Abuztuaren 6an bertan formalizatu zen (Erakunde 1)ek (Erakunde 2)ren bazkide eratzaillei egindako akzio guztien erosketa, baldintza erabakigarri batzuekin, eta 1.321.008.000 pezetako prezioan.

5. 2001eko azaroaren 19an (Erakunde 1) eta (Erakunde 2) sozietateen xurgatzearen bidezko bat-egiteko akordioen protokolo notarialak egin ziren, bat-egiteko prozesu desegokian, urte horretako abuztuaren 6an azkenaren akzioen %100 (Erakunde 1)enak baitziren. Adierazi zenez, xurgatutako sozietateak egindako operazioak 2001eko urriaren 1etik xurgatzaileak egindakotzat jotzen dira; bat-egitearen balantzea egin zen, eta bat-egitearen aldea, hots, xurgatutakoaren ondasun eta eskubideen (batez ere hotela) kontabilitateko balioaren eta (Erakunde 1)ek xurgatutako sozietateko partaidetza eskuratzeko prezioztat kontabilizatutako zenbatekoaren arteko aldea, eskuratutako higiezinaren balio handiagotzat kontabilizatu zen.

Aldi berean, xurgatzaileak bere kontabilitatean 2001eko zergaldiaren hasieran xurgatuak ordaindu gabe zeuzkan zerga-oinarri negatiboak sartu zituen, eta haietako batzuk (Erakunde 1)ek ordaindu zituen; bat-egiteak 2001eko azaroaren 28an dauzka ondorioak, Bizkaiko Merkataritza Erregistroan eskritura publikoa erregistratzen den egunean; hala ere, lehenago –azaroaren 19an- (Erakunde 1)ek eta (Erakunde 2)k Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazten diote zerga arautegian eta, zehazki, Bizkaiko Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko VIII. tituluko X. kapituluaren xedatutako bat-egiteen araubide bereziari heltzen diotela. Bestalde, administrazio bien arteko lankidetzaren printzipioaren barruan, Bizkaiko Foru Aldundiak EZAAREN Euskadiko ordezkariak bereziari jakinarazten dio asmoa, ia zortzi hilabete beranduago –zehazki, 2002ko uztailaren 12an- (alegazioekin batera, EZAAREN igorritako agirien 458 eta 459. orrialdeak, ikus 12. aurrekaria).

2001eko abenduaren 3an (Erakunde 1)ek (IKZ A-NNNNNN) (Higiezin enpresa)ri (Erakunde 2) xurgatzeagatik eskuratutako higiezina (hotela) saltzen dio, 1.497.600.000 pezetatan.

Halaber, (Erakunde 1)ek Bizkaiko Foru Aldundian Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) laugarren hiruhilekoarena aurkezten ditu, eta kitapenaren emaitza Aldundi horretan ordaintzen du.

Bestalde, (Erakunde 2)k 2002ko ekainaren 6an Sozietateen gaineko Zergaren (2001) autolikidazioa eta urte horretako uztailaren 10ean aitorten osagarria aurkeztu zituen, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako egiaztagirietan agertzen denaren arabera. Logikoki, aitorten horiek 2001eko urtarrilaren 1tik irailaren 30era arteko aldia biltzen dute.

6. 2002ko maiatzaren 24an (horregatik da defendaezina edo akatsa egoitza aldaketaren aitortpena 2002ko abuztuaren 6an egin zela nahi izatea) EZAAREN zerga-agente batek (Erakunde 2)ri jakinarazten dio egoitza aldaketaren zentsu-aitortpena betetzen dela egiaztatzeko egiaztapen eta ikerketa jarduketak hasi

direla, eta ohartarazten dio ikuskapen jarduketak zati batekoak izango direla; jarduketa horiek (Erakunde 1)en bulegoan burutu ziren (gogoratu behar da (Erakunde 2) xurgatua zela eta, ondorioz, haren nortasun juridikoa deuseztatua). En la diligencia de constancia de hechos de 11 de julio de 2002, se afirma por el compareciente que "actualmente se encuentra disuelta, sin liquidación, como consecuencia de la fusión por absorción por su único accionista, (Entidad 1)..." 2002ko irailaren 20an Eskualdeko Ikuskapen Unitatearen ikuskari buruak eskualdeko ikuskariari zuzendutako txostena egin zuen; bertan (Erakunde 2)ren zerga-egoitzaren aldaketa onartzea proposatzen da. Agiri horretan akats bat dago, eta akatsa hedatu eta EZAA eta Bizkaiko Foru Aldundiaren alegazioetan sartzen da; akatsa 2002ko abuztuaren 6a zentsuko datuak aldatzeko 037 eredia aurkeztutako eguntzat ezartzean datza. Akatsa EAEAREN 2007ko otsailaren 28ko ebazpenera (NN-NNNNN gaia eta NN/NNNN/NN jard.) hedatzen da, ondoren ikusiko dugunez. Hala ere, uztailearen 11ko eginbidetik ondorioztatzen da egoitza aldaketaren aitorpena aurkeztutako data 2001eko azaroaren 15a dela. Irailaren 20ko txostenean honakoa adierazten da: "NNNNNNNX IFZko (Izen-abizenak) jaunak, (Erakunde 1) sozietatearen ordezkaria den aldetik, 2002ko uztailearen 11n aipatu higieztina data horretan hutsik eta hoteleko jarduerarik gabe zegoen hotel bat dela, eta 2001eko azarotik langilerik ez daukala adierazi zuen". Aipatu eginbidean, ordea, ez da adierazpen hori ageri.

7. Gatazka piztu aurretik, EZAAren Euskadiko Ordezkaritza Bereziak (Erakunde 1)i 2003ko martxoaren 21ean jakinarazitako mezuaren bidez ikuskapen jarduketak hasi zituen; ikuskapen jarduketa horiek dakarten zioa honakoa da: 2002ko abenduaren 10ean EZAAren Ikuskapen Sailaren zuzendariak baimena eman zion EZAAren Kantabriako Ordezkaritzako ikuskari bati EZAAren Euskadiko Ordezkaritza Bereziaren eremuan ikuskapen jarduketak egiteko (Erakunde 1)en zerga egoera erregularizatzeko; kontuan izan behar da prozedura bai sozietate horri berari bai haren aurka (Erakunde 2)ren ondorengo unibertsa den aldetik. Ikuskapen prozeduraren izapidea nahiko luzea da, baina honako egitateetan labur daiteke:

- a) 2004ko abenduaren 2ko Sozietateen gaineko Zergarekiko (2001) desadostasun akta eta 2005eko ekainaren 16ko kitapen ebazpena,

EZAAREN Euskadiko Ordezkaritza Bereziak 2.956.954 eurotan (kuota eta interesak) egindakoa, eta 1.963.985 euroko zehapena (independentziaz izapidetu zena) huts-egite larria egiteagatik. (A02-NNNNN) akta eta kitapena (Erakunde 1)i zuzendu zitzaizkion (Erakunde 2)ren ondorengoa zen aldetik. Kitapen horren aurka 2005eko uztailaren 27an berraztertze errekurtsoa aurkeztu zen, eta hura 2005eko urriaren 7ko ebazpenak ezetsi zuen. Ezesteko ebazpen horren aurka 2005eko azaroaren 4an ekonomia-administraziozko erreklamazioa aurkeztu zen Euskadiko Ekonomia-Administrazio Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren (EAEA) aurrean, eta hura 2007ko otsailaren 28ko ebazpenak ezetsi zuen. Ebazpen horren aurka –gaiaren mamiari buruz ebazten du Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta kitapena egitea estatuaren eskuduntza dela esanez- 2007ko apirilaren 13an Auzitegi Ekonomiko-Administrazio Zentralaren (AEAZ) aurrean gorabidezko errekurtso arrunta aurkeztu zen; ondoren, 2008ko maiatzaren 14an, AEAZk erreklamazioaren izapidea etetea ebatzi zuen, Arbitraje Batzorde honen aurrean eskuduntzako gatazka aurkeztu zelako, erabakia zurrizko berenberegiz Ekonomia Itunaren Legeko 66.bi artikulua deituz.

- b) Aurreko erregularizaziotik eta esandako zenbatekoan zehapena jartzeko ebazpenari dagokionez, erabilitako prozedurazko iterra antzekoa da, datetan aldaketaren bat badago ere; berraztertze errekurtsoa jartzen da -ezetsia-, Euskadiko EAEAREN aurrean ekonomia-administraziozko errekurtsoa jartzen da, eta hark 2007ko otsailaren 28ko ebazpenaren bidez ebazten du Estatuari dagokiola Sozietateen gaineko Zerga ordainaraztea eta, beraz, hari lotutako zigortzeko ahalmena ere bai. 2007ko apirilaren 13an AEAZren aurrean gora jotzeko errekurtsoa jartzen da, eta hark, 2008ko maiatzaren 14ko ebazpenaren bidez, arestian adierazitako zio beragatik (Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka aurkeztea) erreklamazioaren izapidea etetea ebazten du.

- c) 2004ko abenduaren 30eko Sozietateen gaineko Zergarekiko (2001eko zergaldia) desadostasuneko (A02-NNNNN1) akta eta 2005eko uztailaren 12ko kitapen ebazpena, berak egin eta (Erakunde 1)i (bera izateagatik eta ez (Erakunde 2)ren ondorengo izateagatik) zuzendua, zerga-oinarri negatibo desegokiak frogatzeagatik; kitapenean zerga-oinarriak 334.485,39 eurotan gehi interesetan gutxiagotzen dira eta 49.123,50 euroko zehapena jartzen zaio (bananduta izapidetzen dira). Kitapen horren aurka 2005eko abuztuaren 12an berraztertze errekurtsoa jarri zen, eta hura urte bereko urriaren 7an ezetsi zen; berraztertze errekurtsoa ezesteko ebazpenaren aurka (Erakunde 1)ek ekonomia-administraziozko errekurtsoa jarri zuen Euskadiko EAEAREN aurrean, eta hark 2007ko otsailaren 28ko ebazpenaren bidez ezetsi zuen.
- d) 2005eko ekainaren 16an 49.123,50 euroko zigorra jartzeko emandako ebazpena (ANNNNNNNN), urte horretako ekainaren 17an jakinarazi zena, berraztertze errekurritu zen uztailaren 16an; berraztertze errekurtsoa 2005eko urriaren 7an ezetsi zen; ezesteko ebazpenaren aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri zen Euskadiko EAEAREN aurrean, eta hark 2007ko otsailaren 28ko ebazpenaren bidez ezetsi zuen. Akordio edo ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zen Euskadiko Auzitegi Nagusiaren aurrean; hark, 2008ko ekainaren 18ko probidentziaren bidez, alderdiei eta Ministerio Fiskalari "Arbitraje Batzordearen eskumena dela-eta eskumenik ez izateagatik errekurtsoa onartezina izateari buruz" entzutea ebatzi zuen. Estatuko abokatutzak idatzia aurkeztu zuen adieraziz aipatu Auzitegiak ez zeukala eskuduntzarik Arbitraje Batzordea eratu eta lan egiten hasi ondoren; hala ere, eta gaur-gaurkoz, ez dago Auzitegi Nagusiak onartezina izateko aurkeztutako salbuespenari buruz ebazpenik eman izanaren berri.
- e) Balio Erantsiaren gaineko Zergarekiko (2001eko zergaldia) desadostasun akta eta haren ondorengo 2005eko ekainaren 16ko kitapen ebazpena, bulego berak eginak eta (Erakunde 1)i (Erakunde

2)ren ondorengoa izateagatik zuzendua; haren emaitza 0 euroko kuota izan zen. Kitapen horren aurka 2005eko uztailaren 27an berraztertzeko errekurtsua aurkeztu zen, eta hura 2005eko urriaren 7ko ebazpenak ezetsi zuen. Administrazio bidea agortu ondoren, 2007ko apirilaren 2an administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu zen Euskadiko Auzitegi Nagusiaren aurrean; errekurtsua gaur egun ebatzi gabe dago.

- f) Balio Erantsiaren gaineko Zergarekiko (2001eko zergaldia) desadostasun akta eta ondorengo 2005eko kitapen ebazpena, EZAAREN eskualdeko ikuskapen bulegoak egina, (Erakunde 1)i zuzendua; ordaintzeko kitapenaren emaitza 1.385.754,63 eurokoa izan zen, eta Bizkaiko Foru Aldundian ordaindutako zenbatekoa igorritako kitapenaren konturako ordainketatzat jo zen. Administrazio bidea agortu ondoren, 2007ko apirilaren 2an Euskadiko Auzitegi Nagusiaren aurrean egintza administratiboaren aurka egin zen, eta oraindik ebazteke dago. Hala ere, Auzitegiak berak, 2008ko ekainaren 18ko probidentziaren bidez, alderdiei eta Ministerio Fiskalari "Arbitraje Batzordearen eskumena dela-eta eskumenik ez izateagatik errekurtsua onartezina izateari buruz" entzutea ebatzi zuen. Estatuko abokatutzak idatzia aurkeztu zuen adieraziz aipatu Auzitegiak ez zeukala eskuduntzarik Arbitraje Batzordea eratu eta lan egiten hasi ondoren; hala ere, eta gaur-gaurkoz, ez dago Auzitegi Nagusiak onartezina izateko aurkeztutako salbuespenari buruz ebazpenik eman izanaren berri.

8. Aurrekarietako 7.f) puntuan sar zitekeen arren, azpimarratu behar da 2008ko irailaren 9an EZAak Bizkaiko Foru Ogasunari 2005eko urriaren 6ko kitapenetik datorren BEZa (2001) ordaintzeko edo bidaltzeko eskatu diola, liskar judiziala eta Arbitraje Batzordearen aurreko gatazka egon arren.

9. 2008ko maiatzaren 22an, Arbitraje Batzordearen presidentek, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Arbitraje Batzordearen Arautegiko (aurrerantzean, EIABA) 16.2 artikuluko xedapenen arabera, EZAari gatazka aurkeztu zela jakinarazi zion, eta hilabete bateko epea eman zion



egokitzat jotzen zituen alegazioak egiteko eta egoki zeritzen frogak eta agiriak proposatzeko.

10.2008ko ekainaren 20an EZAAREN zuzendari orokorrak alegazioak bideratu eta bere eskubideak defendatzeko egokitzat jo zituen agiriak eman zituen; alegazioak sistematizatu nahian honela laburbiltzen dira:

- a) Gatazkaren xedea nagusia (Erakunde 1)en 2001eko Sozietateen gaineko Zerga eta BEZa ordainarazteko eta egiaztatze eskuduntza zein administraziok daukan zehaztean kokatzen du, Erakundearen zerga-egoitza, bai berari dagokiona bai (Erakunde 2)ren ondorengo legez dagokiona, euskal lurraldean ez, baizik lurralde komunean dagoelakoan, eta Bizkaiko Foru Aldundiak inhibitze egindako eskaerari adierazi gabe uko egiteko zioak azaletik azaltzen ditu.
- b) Bigarrenez, guztiz ezesteko ziotzat, garaiz kanpokotasuna argudiatzen du, gatazka 2008ko martxoaren 14an aurkeztu zelako. EZAAREN ulertzen du gatazka EIABAKO 13.1 artikuluan xedatutako epean aurkeztu behar dela eta, espedientearen Arbitraje Batzordea eratu aurretik hasi den kasuetan (kasu honetan bezala) gatazkak aurkezteko epeak arautzeko araubide iragankorrik ezean, uste du, gertaeren zerrenda honetan zerrendatuko ez ditugun argudio luzeen ondoren, aipatu manuan adierazitako hilabete bateko epea zenbatzeko egunik egokiena 2008ko urtarrilaren 17a dela (Arbitraje Batzordearen Arautegia onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretua Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo eguna); horren arabera, hilabete bateko epea egun horretan hasi behar da zenbatzen. Ondorioz, uste du gatazka garaiz kanpo aurkeztu zela, dies a quo 2008ko otsailaren 17a zelako.
- c) Hirugarrenez, honakoa adierazten du: "gatazka hau onartezina izateari eutsiz, Arbitraje Batzorde honi jakinarazten zaio egun gatazka honen xedea diren jarduketak bide ekonomiko-administratibotik eta judizialetik berrikusi direla edo berrikusten ari direla..." (34. or.); eta errekurritutako kitapen edota egintza administratibo bakoitzaren prozesuaren egoera

aipatzen du.

- d) Idatziak dakartzan honako zuzenbideko oinarriak estatuko zerga administrazioak zergapekoari ebazpen honetako hitzaurrean adierazitako zergak eta zergaldiak edota ekitaldiak egiaztatzeko, ikuskatzeko eta kitatzeko eskumena daukala oinarritzera mugatzen dira; ikusi beharko da gure zuzenbideko oinarrietan garatzen diren, gatazkaren muinari eragiten baitiote, eta horretarako lehenago prozesuaren arrazoiengatik bertan sartzea egokia den ebatzi beharko da.

11. EIABAko 16.4 artikulua arabera, 2008ko irailaren 22an Arbitraje Batzordearen presidentek gatazkan dauden zerga administrazioei eta interesdunari espedientea agerian jarri zela jakinarazi zien, eta hilabete bateko epea (jakinarazpena jasotako datatik zenbatzen hasita) eman zien egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko.

12. Arbitraje Batzorde honetan sartu izanaren urriaren 23ko erregistro datarekin Bizkaiko Foru Aldundiak (zehazki, Ogasun eta Finantza Saileko idazkari tekniko orokorrak) alegazioak aurkeztu zituen; bertan, laburki, EZAAk Ekonomia Ituneko 43. bederatzi artikulua ez betetzean oinarrituta, egiaztatzeko bere eskuduntza alegatu zuen; horren arabera, 2003az geroztik Euskadiko EZAAren jarduketak ab origine zuzenbidean erabat baliogabeak dira, 30/1992 Legeko 62. artikulua arabera, legez ezarritako prozedura alde erabat batera uzteagatik, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesgabetasuna eraginez; Aldundiak zergapekoak emandako informazioen bidez jakin behar izan du (sic) EZAAren jarduketei buruz, eta horren ondorioz ezin zen zehaztu hark egoitza foru lurralde horretan ala lurralde komunean zeukanentz, estatuko agentziak ez zuelako helbide aldaketaren berri eman. Horrekin batera eta bigarren zio bezala, alegatzen du bide judiziala 2007ko apirilaren 2az geroztik hartu zela, Aldundiak gatazka aurkeztu ondoren, eta, beraz, desegokia dela EIABAko 9. artikulua aurka jartzea eta, ondorioz, Euskadiko Auzitegi Nagusiak ez duela gaia ezagutu behar, Ekonomia Itunaren maiatzaren 23ko 12/2002 Legeko 65. eta hurrengo artikuluen arabera. Bide ekonomiko-administratiboko jarduketei dagokienez, gogorarazten du AEAZk Arbitraje Batzorde honen aurrean aurkeztutako

eskuduntzako gatazka ebatzi arte jarduketak eteteko ebatzi duela.

13.2008ko urriaren 27an Arbitraje Batzorde honetan (Erakunde 1)eko administratzaileak sinatutako idatzia sartu zen; bertan bere eskubidearen aldeko alegazioak egiten ditu. Batzuetan gai honen mamirako garrantzirik gabeak diren gertaeren zerrenda osoa egin ondoren, operazioa egiteko zio ekonomikoak azaltzen ditu (hori ere garrantzirik gabea da Arbitraje Batzorde honen iritzia osatzeko, zerga-egoitzaren arabera egiaztatzeko, ikuskatzeko eta kitatzeko ahalmena erabiltzeko eskuduntza daukan administrazioa baino ez baitu erabakitzen), gatazka onartzeko eskatzen du, eta, bai (Erakunde 2)ren kasuan zein (Erakunde 1) haren ondorengoaren kasuan, Sozietateen gaineko Zerga eta BEZa ordainarazteko eskuduntza Bizkaiko Foru Aldundiari dagokiola berriaz ebazteko eta EZAAREN nahiak arbuiatzeko ere eskatzen du.

14. Azkenik, 2008ko urriaren 29an Arbitraje Batzorde honetan EZAAREN zuzendari orokorraren idatzia sartzen da; bertan agentziak 2008ko ekainaren 20ko idatzian (ikus 12. aurrekaria) aipatu zituen egitateak eta zuzenbideko oinarriak errepikatutzat jotzen ditu eta EZAAREN emandako egintza administratiboaren prozesuaren egoeran gertatu diren aldaketak zerrendatzen ditu; aldaketa horiek, kasu batzuetan AEAZREN aurrean aurkeztutako gora jotzeko errekursoetan erreklamazioak etetea ekarri dute eta, beste batzuetan, administrazioarekiko auzi-errekursoak aurkeztea ekarri dute; halaber, daukaten liskar judiziala azaltzen du eta Zerga-bilketarako Euskadiko Eskualde Bulegoak erantzukizun solidarioa ebazteko emandako ebazpenen berri ematen du (lehen idatzian egin ez zuena). Gatazka ez onartzeko eskatzen du hura aurkezteko idatzirik ez dagoelako, eta garaiz kanpoko izateagatik, eta 2008ko ekainaren 20ko idatziko alegazioak errepikatzen ditu; era subsidiarioan, Bizkaiko Foru Aldundiaren nahia arbuiatzeko ere eskatzen du, 2001. urtean (Erakunde 1) zergapekoari dagokionez, bai bera izateagatik bai (Erakunde 2)ren ondorengoa izateagatik, Sozietateen gaineko Zerga eta BEZa ordainaraztea, EZAAREN bidez, Estatuari dagokiola aitortuz, eta zehazkiago, zehazten du Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztutako eta ordaindutako 2001eko laugarren hiruhileko autolikidazioa ordainketa desegokia dela, estatuaren eskuduntza, lehenengo hiru hilabetei ez ezik, 2001. urte osoari baitagokio.

## II.- ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1. Aldez aurretik, logikoa da gatazkako alderdiek, eta bereziki gatazka aurkezten zaion alderdiak, hots, EZAk aurka jarri dituzten prozesuzko kontuak argitzea. Gatazka aurkezteko idatziari buruz, EIABAko 13.2 artikulua eskatutako gutxieneko betekizunak ez betetzeari dagokionez, abenduaren 22ko 2/2008 eta 4/2008 gure ebazpenetan ezarritako doktrina ekarri behar dugu gogora, honako zentzuan: gatazka ez zen 2008ko martxoaren 14an aurkeztu, 2005eko azaroaren 29an baizik; beraz, zaila litzateke Bizkaiko Foru Aldundiarentzat EIABAk eskatutako betekizun formalak betetzea, eta eska dakizkiokeenak 30/1992 Legeak xedatutakoak dira. Egia da 2005eko idatzia nahiko berezia dela –batez ere hartzaileagatik-, baina oso ondo identifikatzen ditu gatazkaren xedea, eragiten dien zergak, zergapeko interesduna eta zein administrazioren aurka zuzentzen den. 2008ko ekainaren 20ko alegazio idatziko 30. orrialdean, EZAk denboran salto egiten duela ematen du, 2005eko maiatzaren (inhibitzeko eskatzeko idatzia aurkeztu zen data) eta 2008ko martxoaren 14aren artean (Bizkaiko Foru Aldundiak idatzia aurkeztu zuen eguna; idatzi hori, ordea, ez da gatazka aurkeztekoa, lehenago izan ere ez zen eta izendatu gabe zegoen Arbitraje Batzordeari lehenago aurkeztutako espedienteak bidaltzekoa baizik), eta Batzorde honek ezin du salto hori onartu; gainera, bere alegazioetan 2005eko azaroan "Ogasun Ministerioari Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen pean jartzeko" (sic) zuzendutako idatzi formala ahaztu edo isildu du. Bizkaiko Foru Aldundiak igorritako espedienteen dokumentatzen den ideia horretatik abiatuz, ulertzen dugu gatazka une hartan indarrean zegoen araudiak –jakina, hori ez zen 2007an onartutako EIABAko 13.2 artikulua-, hots, 30/1992 Legeko 70. artikulua eskatutako formaltasunak betez aurkeztu dela. Berriz ere gure 2/2009 Ebazpenean dauden xedapenak gogoratzea komeni da, ebazten ari garen kasuari erabat aplikatu baitakizkioke; ebazpen horretan Arbitraje Batzorde honek honakoa adierazi zuen: "Arbitraje Batzorde honi Bizkaiko Foru Aldundiak lehenago aurkeztutzat jotzen zituen gatazkei lotutako espedienteak bidaltzeko, Aldundi horrek 2008ko martxoaren 14an egindako idatzia abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Arautegiko (EIABA) 13.2

artikuluari xedatutako betekizunei lotzen ez zaiela ukaezina izan arren, gehiegizko formaltasuna litzateke arrazoi horregatik gatazka ez onartzea, EZAAk nahi duen bezala, gatazka aurkezteko idatzian arautegi horren arabera adierazi behar diren puntuak zailtasunik gabe ondorioztatzen direlako Bizkaiko Foru Aldundiak igorritako espedientetik. Ondorio horren alde egiten du formaltasunaren aurkako pro actione printzipioa, eta, jurisprudenziaren doktrinak ezarritakoaren arabera, horrek inspiratzen du administraziozko prozedura (ikus, beste askoren artean, Auzitegi Gorenaren honako ebazpenak: 1998ko abenduaren 14ko RJ 1998,10208, 1. FD; eta 2003ko abenduaren 9ko RJ 2003,8788, 3. FD)".

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiaren idatzia ez da, EZAAk nahi duen bezala, gatazka aurkezteko idatzia stricto sensu; aitzitik, idatzi horretan Arbitraje Batzordeko kideak izendatu eta haren arautegia onartu ondoren, lehenago aurkeztu ziren baina, batzordearen eraketa burutu aurretik, hots, 2008ko apirilaren 4a baino lehenago, onartu, baloratu eta izapidetu ezinik egon ziren gatazkei buruzko espediente batzuk bidaltzen dira. Administraziozko prozeduretan indarrean dagoen formaltasunaren aurkako printzipio hori gorabehera, administrazioak berak –kasu honetan Bizkaiak- oso zorrotza izan behar du indarrean dagoen araudia betetzeko, baita alderdi formaletan ere, eta, ebazten ari garen kasuan, interpretazio juridikoaren bidez ebatzi ditugun zalantzak uxatzeko, 2008ko martxoaren 14ko idatzian gogorarazi behar zuen hura ez zela gatazka aurkeztekoa, gatazka lehenago aurkeztu baitzen, eta behar bezala identifikatzeko erantsitako agiriak antolatu eta zenbatu behar zituen.

Beraz, bidezkoa da arrazoi horregatik, EZAAk alegatzen duen bezala, gatazka ez onartzeko nahia ezestea, ulertzen baitugu ez dela EIABAKo 13.2 artikulua urratu, gatazka aurkezteko unean denbora arrazoiengatik ezin baitzen aplikatu.

2. Epez kanpo aurkezteagatik garaiz kanpokotasuna alegatzeari dagokionez, EZAAk behin eta berriz erabili du argudio hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen diren beste espediente batzuetan, eta haietako batzuk alderdi horri dagoeneko jakinarazi zaizkion ebazpenak izan dituzte, bide administratiboan

irmoak direnak. Arrazoibideak antzekoak direnez, alegazioaren gaitzespenak zio beragatik izan behar du. Zentzu horretan, argi eta garbi, EZAAk arrazoia dauka dioenean EIABAk ez duela araubide iragankorrik arautzen Arbitraje Batzordeko kideak izendatu eta eraketa burutu baino lehenago aurkeztutako gatazkentzat –horrek inplizituki dakar gatazkak Arbitraje Batzorderik gabe aurkez zitezkeela ulertzea-, baina, abenduaren 22ko 2/2008 Ebazpenean adierazi dugunez, eta bertan alderdiak berberak dira, eta orain ebazten ari garen gatazkan EZAAk erabilitakoen antzeko argudioen aurka: "EIABAn araudi iragankorra egon ezean, ez dago arrazoirik gatazka aurkezteko epea zenbatzen hasteko eguna adierazitako datetan kokatzeko. Aitzitik, egokia dirudi defendatzea Arautegi horretako epeen sistemaren aplikazioak Arbitraje Batzordea bere zereginak burutzen jardutea ezartzen duela. Izan ere, ez luke justifikaziorik izango Ekonomia Itunean xedatutako bide bezala desadostasunak ebazteko Arbitraje Batzordera jotzeko aukera iraungitzeak haiek ezagutzen hasteko organo horrek benetako aukera izan aurretik. Ondorio horrek, gainera, arestiko zuzenbidezko oinarrian aipatu dugun pro actione printzipioan bermatzen da. Gogoeta horiek ikusita, Arbitraje Batzordeak eratuta geratzeko garaian ebazteke zeuden gatazkak izapidera onartzeko irizpidea erabili du; hori 2008ko apirilaren 4an gertatu zen, eta haien artean dago Arbitraje Batzorde honek orain ebatzi behar duena. Egiatan ez dira gatazka berriak, holakoei EIABAn xedatutako hilabete bateko epea aplikatuko balitzaieke, askoz lehenago (batzuetan, ebazpen honi dagokion kasuan bezala) sortutako gatazkak baizik, eta haiek ebazteko gaitu da orain bide hau. Edonola ere, aipatu epea ezin liteke atzerako eraginez aplikatu EIABA argitaratu aurretik sortutako gatazken segurtasun juridikoa kaltetu gabe. Arestiko arrazoibideen arabera, egokia da EZAAk egindako garaiz kanpokotasuneko alegazioa ezestea"; doktrina hori, jakina, gatazka honi dakarkiogu, gure jarrera ezin da ahuldu Arbitraje Batzorde honek bere egin arren, EZAArentzat Batzorde honek defendatzen duen bestelako interpretazioa daukaten jurisprudentziatzko aipuen bidez.

3. Liskar judizialak mugapen bakarra izan behar du (berdin du zerga bati edo batzuei eragiteak), hots, zein ere den errekurtsua jarri duen pertsona edo erakundea, izan gatazkan dauden administrazioak, izan interesduna, EIABAko

9. artikulua ez baitu horri buruzko bereizketarik egiten. Zentzu horretan, ez dago administrazio bien artean ebazteke edo ebatzita dagoen errekurso judizialik edo liskarrik; errekurso guztiak, egoitza administratibo edo eskumenekoan, zergapekoak bultzatu ditu EZAAren aurka, eta auzi-jartzailea, ordea, berdin da gure arautegiaren arabera. EZAAk honakoa adierazi du, besterik gabe: "Onargarritasun ezari eutsiz, Arbitraje Batzorde honi jakinarazten dio, egun, gatazka honetako jarduketak bide ekonomiko-administratibo eta judizialetik berrikusten ari direla, eta haien egoera bertan adierazten dena dela"; hala ere, petitum edo nahian ez du zio horregatik gatazka ez onartzeko eskatzen. Ondoren, 2008ko urriaren 29ko alegazio idatzian, honakoa dio: Alegazio idatzi honetako HIRUGARREN atalean adierazten denez, organo ekonomiko-administratiboek **iritzia eman dute** eskuduntza daukan administrazioari buruz; horrela egin du Euskadiko EAEAk arestiko paragrafoetan aipatu ebazpenetan. Gauzak horrela, **Arbitraje Batzordearen Arautegia onartzen duen 1760/2007 EDko 9. artikulua xedatzen du inolaz ere ezin dela ebatzitako gaiei buruzko gatazkak aurkeztea..**. EZAAk argudiatzen duenaren aurka, ordea, auzitegi ekonomiko-administratiboak ez dira justizia epaitegiak arautegiko manuaren zentzuan, eta ondorio horretara iristen da Konstituzioko 117. artikulutik, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 1/1986 Lege Organikotik, eta, maila baxuagoko beste arau batzuen artean, indarrean dagoen Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorreko 83.2 eta 228. eta hurrengo artikuluetatik, aurreko Zergei buruzko 230/1963 Lege Orokorreko 80. artikulutik eta azkenari buruz egondako jurisprudenziatik (besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiak deitu duen Auzitegi Nazionalaren 2003ko otsailaren 28ko ebazpena). Izaera hori Europako Batasunaren epaitegien aurrean epai aurreko kontuak planteatzeari begira baino ez zitzairen izaera hori onartu (zehazki Kataluniako EAEari) Europako Komunitateetako Justizia Auzitegiaren martxoaren 21eko 2000/47 ebazpenean.

4. Bestalde, zergapekoak, urriaren 27ko alegazioetan, ia ez du liskar judiziala aipatzen –bidenabar esanda, hark bultzatu zuena- eta gatazka onartzeko eta eskuduntza Arbitraje Batzordeari emateko eskatzen du, prozesuzko kontraesanean eroriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoen bultzatzailea

bada, ezin baitu, EIABako 9. artikulua alde batera utziz, mamiari buruz Batzorde honek ebazteko eskatu, ondoren ikusiko ditugun zioengatik.

5. Bukatzeko, eta teknikoki ebazteke dauden administrazioarekiko auzi-errekurtsoetan ez alderdi auzi-jartzailea ez demandatua izan ez arren, Bizkaiko Foru Aldundiak 2008ko urriaren 23ko alegazioetan jarrera eklektikoa hartzen du. Alde batetik, ados dago errekurtso ekonomiko-administratiboetako jarduketak etetearekin –aurrekarietan aipatu ebazpenetan Auzitegi Ekonomiko-Administratibo Zentralak ebatzitako etetea-; bestetik, eta 2007an gatazka aurkeztu ondoren (behar bezala 2005ean kokatuta) bide judiziala hasterakoan, adierazten du ez dela egokia EIABako 9. artikuluan ez onartzeko jasotako zioa, eta beraz Euskadiko Auzitegi Nagusiak ez dituela errekurtsoak ezagutu behar, Ekonomia Ituneko 65. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera. Bistan denez, Arbitraje Batzorde hau ezin da independentzia judizialean sartu eta ez da organo egokia justizia auzitegi bati inongo gairik ez ezagutzeko eskatzeko, Arbitraje Batzordearen ebazpenen aurka zuzenean Auzitegi Gorenaren aurrean, eta ez Auzitegi Nagusien aurrean, egiten den arren. Beraz, ezin dugu onartu Bizkaiko Foru Aldundiaren asmo hori eta, haren izenean, ezin dugu auzitegi horretara jo printzipioz eskuduntza daukan kasu bat ez ezagutzeko eskatzeko, ebaztea hari baino ez dagokion ez onartzeko ziorik egon ezean.

6. Liskar judizialaren disezio horri komenigarri iritzita (zeinen arabera auzitegi ekonomiko-administratiboak ez baitira botere judizialaren baitakoak), EIABako 9. artikulutik ondoriozta daitekeen eta aurka egiteko EZAAk erabili duen prozesuzko oztopoa epaitzeko, ondorioak honakoak baino ezin dira izan, eta haietako batzuk Arbitraje Batzorde honen abenduaren 22ko 4/2008 ebazpenean adierazi ziren:

- a) Auzitegi ekonomiko-administratiboak ez dira justizia epaitegiak EIABako 9. artikuluen zentzuan eta, gainera, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeko 66.bi artikulua eragindako administrazioen kontzeptuaren barruan sartzen dira.
- b) Organo horiek (estatuko edo foru) administrazioaren baitakoak diren



heinean, eskuduntzako gatazka aurkeztutakoan ondoren ezin dute jarduketarik egin, 12/2002 Legeko 66.bi artikulua arabera, AEAZk Sozietatearen gaineko Zergei dagokienez 2008ko maiatzaren 14ko ebazpenetan ondo egin zuen bezala. Bestalde, EZAren Euskadiko kudeaketa organoak eta zehazki ordezkariak bereziak gatazka aurkeztu zela zekiten, eta hori zalantzarik gabe geratzen da 2008ko ekainaren 20ko alegazioetako 24. orrialdea ikusita, bertan adierazten baita 2005eko abenduaren 7an bertan ezagutu zuela, bertan aipatzen baita "gatazka aurkezten dela Estatuko Ogasunaren Ikuskaritzaren aurrean" (sic).

- c) Halaber, argi dago Estatuko Administrazioak ez ziela jarduketei uko egin ez haiek geldiarazi, Ekonomia Itunak agintzen duenez, inhibitzeari eta geldiarazteari aurka egiteko aholku txosten bat (462/2006) eta EZAren zerbitzu juridikoen irizpen bat (563/03) aipatuz; irizpenak funtsean honakoa dio: "Arbitraje Batzordea eratzten ez den bitartean ezin da haren aurrean gatazkarik aurkeztu horrek dakartzan ondorio juridikoekin, bereziki, jarduketan etetea..."; Euskadiko EAEAk ere aipatzen ditu txostenak eta irizpenak 2007ko otsailaren 28ko ebazpenetan. Horrek ekarri du 2005etik jarduketek jarraitzea, eta Arbitraje Batzorde honek ezin ditu haien ondorioak eratu aurretik baliogabetu, are gehiago Auzitegi Gorenak, Ituneko 66.bi artikuluz egiten duen interpretazioari dagokionez, 2008ko uztailaren 10eko ebazpenean ezarritako doktrina aintzat hartuz; manu hori ez da automatikoki ezartzen, Arbitraje Batzordeak esku hartzen duenean baizik (ebazpen horretako zazpigarren OJa). Eta, argi dagoenez Arbitraje Batzordea 2008ko apirilaren 4an eratu zela, egun horretatik baino ezin da Ituneko 66.bi artikuluko mekanismoa abiarazi; mekanismoak ope legis funtzionatzen du, baldin eta Arbitraje Batzordeak gatazka izapidetzea onartzen badu.
- d) Zergapekoak, gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztu izanagatik, Euskadiko EAEaren eskuduntzarik eza alegatu arren, hark ukatu egiten du hura 2005eko azaroaren 29an aurkeztu zenik, eta

jarduketei jarraitzen die ebazpenak eman arte; haietako batzuk Euskadiko Auzitegi Nagusiaren aurrean daude errekurrituta, eta beste batzuk AEAZren aurrean, azkenak 2008ko maiatzaren 14an, (Erakunde 1)en Sozietateen gaineko Zergari lotutako hiru ebazpenetan –kitapenari, perituen tasazio kontrajarriaren eskaerari eta zehapenak jartzeari buruzkoak- prozedurak eteteko agindu arren. Zentzu horretan, AEAZren jarreraren zuzenketa azpimarratzen dugu, hura Ituneko 66.bi artikulua ondoiekin bat baitator, Auzitegi Gorenak hari emandako interpretazioan.

7. Bizkaiko Foru Aldundiaren nahia ezatea ere egokia da, honako zentzuan: administrazioarekiko auzi-errekurtsoak 2007an, gatazkaren ondoren, jarri zirenez, EIABako 9. artikulua ez da aplikagarria; zentzu horretan, lehenago izan balira, planteamendua ez litzateke batere onetsiko, baina ondorengo planteamenduak ezin dio prozesuzko ondorioak izateari utzi, bestela, Arbitraje Batzordeak justizia epaitegiekin paraleloki jardungo lukeelako, eta hori ez da ez posible ez bideragarria, gatazkak ebazteko organo berezia delako, baina haren izaera administratiboa delako, eta ez eskumenekoa. Gainera, abenduaren 22ko 4/2008 ebazpenean adierazi dugunez, gerora etorritako liskar judiziala .hots, gatazka aurkeztu ondoren gertatutakoa. prozesuzko oztopoa da, eta Arbitraje Batzorde honen aurrean jarraitutako prozedura etenez baino ezin da gainditu; prozedura, behar balitz, dagokion ebazpen judiziala ematerakoan altxatuko da. Eta errepikatu egingo dugu: Arbitraje Batzorde honek ez dauka eskumenik Euskadiko Auzitegi Nagusiari ez jarduteko eskatzeko ezta eskuduntza gatazkarik aurkezteko ere.

8. Halaber, zergadunaren nahia ezatea ere egokia da, prozedura Arbitraje Batzorde honen aurrean in totum izapidetzearen zentzuan, are gehiago haren nahia EIABako 9. artikuluaekin talka egiten duenean; manua haren aurrean prozedura eteteko zioa da, hark jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen ondorioz, eta gogorarazi behar da (Erakunde 1) dela interesdun edo kaltetua, baina ez alderdia hitzaren prozesuzko zentzuan Arbitraje Batzorde honek jarraitutako prozeduran. Dena dela, adierazi dugunez, EIABako 9. artikulua

liskar judizialaz hitz egiten du zein ere den aurkeztu duena, eta ez du herri administrazioen eta zergapekoen arteko bereizketarik egiten.

9. Laburbilduz, gure jarrera, prozesuzko oztopoetako batzuk gaindituta, honakoa da: egokia da Arbitraje Batzorde honen aurrean jarraitutako gatazkaren izapidea etetea, honako gogoetetatik ateratako liskar judiziala kontuan hartuta:

- a) 2001eko BEZari dagokionez, liskarra dago Euskadiko Auzitegi Nagusiaren aurrean, eta beraz, ezin da gaiaren mamian sartu; horren orde, (Erakunde 1)i, bai bera izateagatik bai (Erakunde 2)ren ondorengoa izateagatik, bidalitako desadostasun eta kitapeneko akten etetea ebatzi behar da.
- b) Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, liskar judiziala zerga-oinarri negatiboak ordaintzeko zehapena jartzeko ebazpenaren aurka Euskadiko Auzitegi Nagusiaren aurrean jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsotik dator; izan ere, EZAAk Sozietateen gaineko Zerga ordainarazteko eskuduntza izateko kasuan baino ez luke eskuduntza zerga horretan arau-haustek egiteagatik zehapenak jartzeko.

Gauzak horrela, Arbitraje Batzordeak

### **ERABAKI DU**

Arbitraje Batzordearen Arautegiko 9. artikuluan jasotako prozesuzko oztopoa desagertzen ez den heinean, 9/2008 espedientearen ebazpena etetea.

Ebazpen hau betez; eta Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Arautegiko 16.5.e) artikuluan xedatutakoa betez, gatazkan dauden administrazioei Ekonomia Ituneko 66.bi artikuluan eta Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Arautegiko 15.1 artikuluan xedatutakoa gogorarazten die, gatazka ebatzi arte, gatazka eragin duen gaiari dagokion jarduketarik ez egiteari dagokionez.